



## Eskola Kirola – 2017-2018ko lehiaketako araudia

# ESKUBALOIA

### 1.- LEHIAKETA SISTEMA

Talde edo maila desberdinetan egingo da lehiaketa, eskakizun teknikoen arabera.

MAILAK	MODALITATEA			ESKAKIZUN TEKNIKOAK
	MUTILAK	NESKAK	MISTOA	
BENJAMINAK	Minieskubaloia	Minieskubaloia	Minieskubaloia	Banakako defentsa
KIMUAK	Minieskubaloia 7ko eskubaloia	Minieskubaloia 7ko eskubaloia	Minieskubaloia 7ko eskubaloia	Banakako defentsa minin Irekia 3:3 edo 4:2
HAURRAK	7ko eskubaloia	7ko eskubaloia	7ko eskubaloia	Defentsa irekia 3:3 edo 4:2
KADETEAK	7ko eskubaloia	7ko eskubaloia	7ko eskubaloia	Mistoa debekatuta

### 2.- BALOIA

KIMUAK. Baloia zirkunferentzia 48 cm-koa izango da.

HAURRAK ETA KADETEAK (NESKAK). Baloia zirkunferentzia 50-52 cm-koa izango da.

HAURRAK ETA KADETEAK (MUTILAK). Baloia zirkunferentzia 54-56 cm-koa izango da.

Arabako Eskubaloia Federazioak homologatutako balioak erabiliko dira.

### 3.- ENTRENATZAILEA

Taldearekin izena emandako entrenatzaileak/hezitzaileak nahitaez egon beharko du partidetan. Entrenatzailea taldearen zuzendaria da, jokalariei aholku ematen die zelaiaren albotik eta jokalariai ordezkatzeko eta hutsarteak eskatzeko arduraduna da.

Jokalarien, ordezkoen eta beraiekin daudenen portaeraren erantzule ere izango da.



#### 4.- PARTIDEN IRAUPENA

MINIESKUBALOIA. 10 minutuko 4 zati izango ditu.

HAUR ESKUBALOIA. 25 minutuko 2 zati izango ditu, eta 10 minutuko atsedena.

KADETE MAILAKO ESKUBAIOLA. 30 minutuko 2 zati izango ditu, eta 10 minutuko atsedena.

#### 5.- ARBITROEN BETEBEHARRAK

Arbitroek partida hasi baino 15 minutu lehenago azaltzeko betebeharra dute, salbuespenak salbuespen.

Aktak behar bezala idatzi behar dituzte, baita beharrezko guztia eskatu ere (fitxak, zenbakia, sinadurak,...).

Federazioari partiden emaitzak jakinarazi beharko zaizkio, hurrengo asteleheneko 20:00ak baino lehenago. Era askotara egin daitezke:

- ❖ Telefonoz deituta (19:00etatik aurrera):
  - Federazioaren telefono finkora: 945131236
  - Federazioaren telefono mugikorra: 650481755
- ❖ Mezu elektronikoa bidalita helbide honetara: [fealabm@euskalnet.net](mailto:fealabm@euskalnet.net)
- ❖ Telefono honen erantzungailu automatikoan mezua utzita: 945131236
- ❖ Telefono mugikor honetara mezua bidalita: 650481755
- ❖ Aktak Federaziora eramanda.
- ❖ Aktak Saskibaloia Federazioaren postontzian sartuta, "Kirol Etxea"ren sarreran.

Aktek Federazioaren eskuetan egon behar dute astearteko 19:00ak baino lehen, eta Federazioan eskura eman edo Federazioak "Kirol etxea"ren sarreran duen postontzian utzi ahal izango dira.

Aurreko arautegia (emaitzen berri ematea edo akta aurkeztea) betetzen ez duten epaileei hurrengo zigorrak jarriko zaizkie:

- ❖ Lehenengo aldiz, ohartarazpena.
- ❖ Bigarren alditik aurrera, partidaren ordainsarien % 10 ordaintzea.

Justifikaturiko arrazoirik gabe, norgehiagoka batean azaltzen ez diren epaileek dena delako partida ez dute kobratuko, eta horrez gain, partida horren ordainsariari dagokion zenbatekoaren isuna ordaindu beharko dute.



## 6.- PARTIDAK ATZERATZEA ETA BERTAN EZ AGERTZEA:

Inplikaturiko taldeek adostuta edo ezinbesteko kasuetan egingo dira atzerapenak edo egun aldaketak eta Federazioari beti horren berri eman beharko zaio, eta inguruabar guztiak “artxibatze moduan” jasota geratu beharko da (telefono mugikorrera mezua bidalita, mezu elektronikoa igorrita, idazkia aurkeztuta...). Partida eguna jasota geratuko da.

Partida bat atzeratzeko epea aurreko asteleheneko 20:30era arte izango da.

Partidaren atzerapena ez balitz ezarritako epean egingo, azaldu ez den taldea azaldu gabekotzat joko litzateke, eta honako zigorrek izango litzuzke:

- ❖ Galdutako partidatzat hartuko litzateke eta emaitza 10-0 izango litzateke.
- ❖ Sailkapen orokorrean bi puntu galduko litzuzke, eta beste talde batzuekin puntutan berdinketarik egonez gero, talde horietako azkena geratuko litzateke.

Aldundiak antolaturiko garraioa ez balitz erabiliko, horrek erabakiko luke hurrengo joan-eterrietarako autobusa jarriko lukeen edo ez, klubak (ez federazioak) dagokion sailari azalduko lizkiokoen alegazioak aztertu ondoren.

Atzeratutako partida guztiak dagokion buelta bukatu aurretik jokatu beharko dira. Ezarritako epean egingo ez balitz, bi taldeei partida galdutzat hartuko litzazieke edo “errudun” argia egotekotan, talde horri hartuko litzazioke galdutzat.

Talde bat birritan agertuko ez balitz, lehiaketatik kanporatu ahal izango lukete, haren alegazioak aztertu ondoren.

Talde bat partida jokatzen hasteko nahikoa ez den jokalaria kopuru batekin azaltzen baldin bada, ez du eraginik izango partidaren emaitzan; talde hori azaldu gabekotzat joko da eta dagozkion zigorrek jarriko zaizkio.

Deskalifikatutako talde batek lortutako emaitza guztiak sailkapen orokorretik ezabatu egingo dira.

## 7.- KADETE MAILA

Substantzia itsasgarriak edo kolak erabiltzea debekatuta dago maila honetan.

Defentsan edo erasoan espezialistak diren jokalaria ezin dira aldatu, eta baloiaren posesioa dutenean egin behar da. Arau honen espirituaren kontra jotzea bi minutu kanporatzearekin zigortuko da. (Egin ahal da, esaterako, baloiaren posesioan egonez gero, jokalaria bat abisatzea aldaketa egiteko, eta bide horretan posesioa galtzen bada ere, egin).

Ezin izango dira defentsa mistoak egin.

- ❖ Lehenengo aldiz, ohartarazpena.
- ❖ Hurrengoetan, bi minutuko kanporaketa.



## 8.- HAURREN ETA KIMU MAILAKO ESKUBALDIA

Substantzia itsasgarriak edo kolak erabiltzea debekatuta dago maila honetan.

Defentsan edo erasoan espezialistak diren jokalaria ezin dira aldatu, eta baloiaren posesioa dutenean egin behar da. Arau honen espiritua kontrajotzea bi minutu kanporatzearekin zigortuko da. (Egin ahal da, esaterako, baloiaren posesioan egonez gero, jokalaria bat abisatzea aldatuta egiteko, eta bide horretan posesioa galtzen bada ere, egin).

Ezin izango dira defentsa mistoak egin.

- ❖ Lehenengo aldiz, ohartarazpena.
- ❖ Hurrengoetan, bi minutuko kanporaketa.

Ezin dira defentsa "itxiak" egin, bakarrik utziko dira 3:3 eta 4:2 defentsak egitea. Linea arteko distantzia hiru metrokoa izan behar da.

- ❖ Lehenengo aldiz, ohartarazpena.
- ❖ Gero, zazpi metroko jaurtiketa eta, gola sartu ala ez, baloiaren posesioa alboko sakearekin zelai erditik.

Emitza aktan jasoko da, talde bakoitzak guztira sartutako golekin. Irabazle izango da partida amaitzen denean gol gehien lortu duena. Talde biek gol kopuru berdina lortzen badute, berdinketa egon dela joko da.

## 9.- KIMU MAILAKO MINIESKUBALDIA

Zati bakoitzeko irabazleak gol bat lortzen du. Berdinketa izanez gero, biek.

Aldaketak atsedendietan egingo dira, 4.ean libre izanik.

Ezin du inolako jokalaririk, ezta atezainak ere, jarraiko bi zatitan jokatu, taldeko jokalaria guztiek jokoan parte hartu ez duten arte.

Defentsa banakakoa izango da zelai guztian.

- ❖ Lehenengo aldiz, ohartarazpena.
- ❖ Gero, zazpi metroko jaurtiketa eta, gola sartu ala ez, baloiaren posesioa alboko sakearekin zelai erditik.
- ❖ Atezainaren paseak ez du zelai erditiko linea gaindituko. Gainditzen badu, jaurtiketa librearekin zigortuko da zelai erditik.
- ❖ Jokalariren bat botatzen bada, beste jokalaria batek ordeztuko du, jokalaria kopurua murriztu ez dadin.



## 10.- PARTIDEN ORDUAK

Partiden orduak federazioaren jakinaren ganean egon beharko dute, partida aurreko asteleheneko 20:30 baino lehen. Era askotara egin daiteke:

- ❖ Telefonoz deituta (19:00etatik aurrera):
  - Federazioaren telefono finkora: 945131236
  - Federazioaren telefono mugikorra: 650481755
- ❖ Mezu elektronikoa bidalita helbide honetara: [fealabm@euskalnet.net](mailto:fealabm@euskalnet.net)
- ❖ Telefono honen erantzungailu automatikoan mezua utzita: 945131236.
- ❖ Telefono mugikor honetara mezua bidalita 650481755

Kimu eta haurren kasuan, taldeetako batek beste herri batera joan behar duen partidetarako, ahaleginduko da partida hasten 10:00etatik 12:00etara bitartean.

Halaber, partiden ordua parte hartzaileen adinari egokitzeko gomendioa egiten da. Horrela, goragoko mailetan, partiden ordua goizago izango da beheragoko mailetan baino.

Aurreko araua betetzen ez duten klubak honelaxe zigortuko dira :

- ❖ Lehenengo aldiz, ohartarazpena.
- ❖ Bigarren alditik aurrera, 10 euroko isuna jakinarazten ez den partida bakoitzeko.

## 11.- LEHIAKETA-EGUTEGIEN ALDAKETAK

Lehiaketen egutegia ezinbesteko arrazoiengatik baino ezin izango da aldatu. Edozein arrazoiengatik (elkarbizialdiak, ikasketa amaierako bidaia, eta abar) partidaren bat geroratzea beharrezkoa denean, kontrako taldearen adostasuna eta neurketa egingo den eguna eta ordua aurkeztu beharko dira. Bi egoera horietako edozeinetan, Arabako ESKUBALOI Federazioari idatziz eskatu beharko zaio HAMABOST EGUN lehenago.

Arau horietakoren bat betetzen ez bada, zigor araudiko ez azaltzei buruzko artikulua aplikatuko dira.

## 12.- MARKAGAILUA

KIMU, HAUR eta KADETE mailetakoko partidetan, markagailuko aldea 10 gol baino gehiagokoa izatera heltzen bada, partida bukatutzat emango da, baldin eta galduz doan taldeak hala eskatzen badu.

## 13. -DIZIPLINA ARAUDIA

391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa izango da aplikagarria.